

Hego-mendebaldeko hiru ballet nagusiak oholtza berdinean elkarturik lehenengo aldiz

Malandain Ballet Biarritzek ekainaren 5 eta 6rako antolatu duen “Balletaren Asteburua” ekitaldiak egungo dantza klasikoaren ikuspegi paregabea eskainiko die Biarritzeko ikusleei.

Errepertoriotik sorkuntzara

Thierry Malandainek Kader Belarbiren Toulouseko Kapitolioaren Balleta eta Charles Juderen Bordeleko Opera Nazionaleko Balleta gonbidatu ditu Biarritzeko Gare du Midiko eszenatokia bere konpainiarekin partekatzen. Ikusleek *On Kixoteko* III. Ekitaldia ikusiko dute, Rudolf Nureyev bertsioan, Toulouseko Kapitolioaren Balletaren eskutik; Maurizio Wainroten *Carmina Burana* Bordeleko Opera Nazionaleko Balletaren eskutik; eta aurrestreinaldi bat ere: *Estro*, Thierry Malandainen azken lana. Lan berri horretarako koreografoa Vivaldiren lan “sutsu” batean oinarritu da: *Estro armonico, Op .3.*

Lankidetzak koreografikoa, Balletaren Asteburuaren funtsa

Charles Jude, Kader Belarbi eta Thierry Malandain dantza klasikoaren estetika bere erroetatik egungo formetara eraman duten hiru artista ospetsu dira. Eta Frantziako Kultura eta Komunikazio Ministerioak bultzatu duen Hego-mendebalde Handiko Lankidetzak Koreografikorako Poloaren eskutik bildu dira.

Proiektuaren iturburua ondorengo hausnarketak izan ziren. Balletak inoiz baino arrakasta handiagoa dauka ikusleen artean, errepertorioko lanei zein sorkuntza berriei esker. Eta, halere, kontratu mugagabea duten 500 dantzari daude soilik Frantzian, konpainia gutxi daude beste herrialdeekin alderatuta eta, azken finean, lengoaia akademikoa garatzen duten koreografo gazte gutxi daude. Eta hori oso paradoxikoa da; izan ere, aipatu lengoaia -eta balleta antzerki genero gisa- Frantzian egin zen “noble”, European eta osteran mundu osoan errotu baino lehen.

Testuinguru horretan, Lankidetzak koreografikorako poloaren xedea da egungo balletaren inguruko hausnarketa komuna egitea: koreografia berrien sorkuntza eta ekoizpena, biren eredu ekonomikoa, koreografo klasiko / neoklasiko gazteen larrialdi-egoera, dantzarien prestakuntza eta ibilbidea...

Ikuskizunen inguruan

Balletaren Asteburua, ondorioz, aipatu hausnarketa aberasteko abagunea izango da eta lan-bilerak egingo dira horretarako, ondoko partaideekin: Kultura eta Komunikazio Ministerioa, Marseillako Ballet Nazionalea, Preljocaj Balleta, Lorrenako Balleta, Rineko Opera Nazionaleko Balleta, etab.

Ikusleek, bestalde, artista koreografikoen egunerokotasuna deskubrituko dute, entsegu publiko eta artistekin eginiko topaketen bidez. Eta hiru artista / zuzendariekin (Charles Jude, Kader Belarbi eta Thierry Malandain) solas egiteko aukera izango dute ere beste topaketa - eztabaida batean.

Egitaraua

Biarritz - Gare du Midi

Uztailaren 5a, larunbata,

21:00h

Toulouseko Kapitolioaren Balleta
On Kixote (III. Ekitaldia, 2. eszena)
Musika: Ludwig Minkus – Koreografia: Rudolf Nureyev

Malandain Ballet Biarritz
Estro aurrestreinaldia (sorkuntza)
Musika: Antonio Vivaldi – Koreografia: Thierry Malandain

Bordeleko Opera Nazionaleko Balleta
Carmina Burana
Musika: Carl Orff – Koreografia: Mauricio Wainrot

Uztailaren 6a, Igandea, 16:00h

Toulouseko Kapitolioaren Balleta
On Kixote (III. Ekitaldia, 2. eszena)
Musika: Ludwig Minkus – Koreografia: Rudolf Nureyev
Binako pausoa *Basoko Loti Ederra, Beltxarga Beltza eta Romeo eta Julieta*

Malandain Ballet Biarritz
Estro aurrestreinaldia (sorkuntza)
Musika: Antonio Vivaldi – Koreografia: Thierry Malandain

Txartel-leihatila

Biarrizko Turismo Bulegoa
Tfnoa. (0033) 05 59 22 44 66
www.tourisme.biarritz.fr Ticketnet / Leclerc-Auchan
Tfnoa. (0033) 0 892 390 100 (0,34€/min)
www.ticketnet.fr France Billet / Fnac-Carrefour-
Géant
Tfnoa. (0033) 0 892 683 622 (0,34€/min) – www.fnac.com

Informazioa

Malandain Ballet Biarritz Tfnoa. (0033) 05 59 24 67 19

Malandain Ballet Biarritz

Balletaren bizitza eta Thierry Malandainen ikuspegi artistikoa eta errepertorioa estuki lotuta daude.

“Konplexurik gabeko ballet klasikoarena da nire kultura eta hori da nik garatzen dudana. Bere kode artistiko eta sozialak beste garai batekoa direla onartzen badut ere, nire ustez lau mendeko historiarengandik jaso dugun material guzti horrek baliabide paregabeak eskaintzen dizkio dantzariari. Dibertitzea, maite dudan dantza lortzea da nire nahia, klasikoa izango dena zenbaitentzat, garaikidea bestentzat. Plazeraren arrastoa uzteaz gain, jainkotasunarekin adiskidetu nahi duen dantza, izatearen zailtasunei erantzuteko”. Thierry Malandain

Izenez zen errepertorioz, Malandain Ballet Biarritzek bere koreografo nagusiaren eta bere lanen erreferentzia estetikoak aldarrikatzen ditu.

Akitaniako Zentro Koreografiko Nazionala Pirinio Atlantikoetan / Malandain Ballet Biarritzek Kultura eta Komunikazio Ministerioaren, Biarritzeko Hiriaren, Akitaniako Eskualde Kontseiluaren eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiaren laguntza jasotzen du.

Thierry Malandain

75 lan baino gehiago sinatu dituela honezkero, Thierry Malandainek errepertorio koherentea eta dantzaren ikuspegi oso pertsonala garatzen jarraitzen du. Azkena "Ballet" kontzeptu" zehatz bati lotuta dago: dantza-gorpua da osagai nagusia; bere potentzia, bere birtuosismoa, bere gizatasun eta sentsualitatea.

Thierry Malandainen lana giza balore sendoetan oinarritzen da. Estiloak, intemporal bezain boteretsu eta soila, estetikaren zentzua bilatzea du helburu. Aipatu estiloa bena edo ozarra izan daiteke eta bere aberastasuna artearen erroetan zein diziplinaren ikuspegi dinamikoan oinarritzen da.

Ondorioz, konpainia dantza klasikoaren teknikan adituak diren baina koreografien bidez egungo espresioa azalerazten duten dantzariak osatuta dago.

Thierry Malandainen lanen idazkerak modernotasun eta klasikotasunaren, historia eta egungo munduaren arteko harmonia bilatzen du. Izan ere, errepertorioko lanei dagokienean duen ikuspegi berri, pertsonal eta boteretsu hori (*Romeo eta Julieta*, *Orfeo eta Euridice*, *Faunoaren Bazkalondoa*, *Intxaur Kraskagailua*, *Bolero* edota *Pulcinella* ere) sorkuntza erabat berriekin tartekatzen du: *Lucifer* (2011), Guillaume Connessonen musika ezezagunarekin edo *Azken abesti bat* (2012), joandako Frantziar egoniko maitakerien inguruan...

Thierry Malandain, halaber, bere garaikideei irekita dagoen artista da eta, ondorioz, estetika erabat ezberdinak dituzten koreografo ugari hartu ditu Biarritzeko Zentro Koreografiko Nazionalan edo hiri horretan zuzentzen duen "Le Temps d'Aimer" jaialdian.

Bordeleko Opera Nazionaleko Balleta

Frantziako ondare Luis XIV.etik aurrera, balletak historia bat, ideologia bat, estetika bat darama bere barruan. XVIII. mendetik aurrera dantzak dimentsio ospetsu eta sortzailea lortu zuen Bordelen, mende erromantikoan zehar mantenduko zena. Iragan horri fidel bere ibilbidean zehar, 1990ko hamarkadatik aurrera Bordeleko Opera Nazionaleko Balletak bere ondare klasikoa modernotasunean murgildu zuen, koreografo ezberdinen bidez. Bordeleko Operako zuzendaritza hartzerakoan, 1996ko irailean, Thierry Fouquetek Charles Jude dantzari izarra izendatu zuen Balletaren zuzendari. 38 dantzariren buru eta Eric Quilleré dantza maisuaren laguntzarekin, Charles Judek lehentasuna errepertorio klasiko bat sortzea izan zen, ballet klasikoak birlاندuz eta koreografia ederrak sinatuz. Programa berri bat proposatzen du denboraldi bakoitzean eta bertan koreografia neoklasikoak, modernoak edota garaikideak sartzen ditu. Taldeak, ondorioz, lan berriak prestatzeko aukera dauka.

2008ko urrian balletak *Quatre tendances* segida hasi zuen, nazioarteko mailako hiru lan nagusirekin batez ere: Thierry Malandainen *Valse(s)*, Vaclav Kunesen *Temporary Condition* eta Anthony Egéaren *Tétris*. Aldi berean, bira ezberdinak egin zituen: Japonia, Estatu Batuak, Espainia, Italia, Paris, Kiev, Lausana, Bordelen antolaturiko "Nureyev-en omenez" ekitaldietan partaidetza, Monako, Tokio, Mosku, Edinburgoko Nazioarteko Jaialdia, Budapesteko Udaberriko Jaialdia, San Petersburgo (Mariinski Antzokia), Habanako Jaialdia, Diaghilev Jaialdia Herbehereetan... Bordeleko Opera Nazionaleko Balletak Serge Lifar saria jaso zuen 2001eko azaroan Bordeleko Antzoki Handian eskaini zituen *Suite en Blanc* eta *Ikaro* lanengatik, eta baita Herald Angels saria Edinburgoko Nazioarteko Jaialdian ere. Azkenik, atzerriko konpainiarik onenari emaniko saria jaso zuen Kuban.

Charles Jude

Pariseko Operako dantzari izar, Charles Judek Bordeleko Opera Nazionaleko Balleta 1996ko irailaren 1etik zuzentzen du. Nizako Kontserbatorioan Alexandre Kalioujnyrekin ikasi ostean, 1971n Pariseko Operako balletetan sartu zen. Lehen dantzari 1975ean, brontzezko domina lortu zuen, Florence Clercekin batera, Tokioko Nazioarteko Lehiaketan. 1977ko uztailaren 8an Izar izendatu zuten, *Ivan Beldurgarriaren* papera bikainki egin eta gero (Youri Grigorovitch).

Bere dantzak katu-arintasuna (*Faunoaren Bazkalondoa*, V. Nijinski) eta estilo klasikoaren dotorezia (*Etudes*, H. Lander) uztartzen ditu; ondorioz, dantzaririk aproposena da printzeen paperak egiteko. Ballet klasikoaren paper garrantzitsuenak dantzatu zituen 1978 eta 1996 bitartean (*Giselle*, eta Rudolf Nureyev-en bertsioetan: *Intxaur Kraskagailua*, *Beltxargen aintzira*, *Raymonda*, *Romeo eta Julieta*, *Basoko Loti Ederra*, *Errauskine*, *La Bayadere*, *On Kixote...*) eta Ballet Errusiarren lanak (*Arrosaren mamua*, *Faunoaren Bazkalondoa*, *Petrushka...*).

Pariseko MGKNeke irakasle, Monakoko Dantza Akademian irakasten du ere Marika Besobrasovarekin batera. 1996ean, Bordeleko Operako Balletaren zuzendaritza hartu eta gero, dantzatzen jarraitu zuen Charles Judek (*Faunoaren Bazkalondoa*, *Petrushka*, *Suite en blanc*, *Les Quatre tempéraments*, *Serenade*, *Seme iriolea*, *Ikaro*, *Aureola*, *Mairuaren Pavana...*) Eta ospetsu bilakatu da, koreografoen artean, ballet ospetsuenen inguruan eginiko irakurketarengatik (*Intxaur Kraskagailua*, *Giselle*, *Coppelia*, *Basoko Loti Ederra*, *Beltxargen aintzira*, *Zurezko Printzea* eta *On Kixote*). 2009ko martxoan *Romeo eta Julietaren* koreografia berria egin zuen. Charles Judek Nijinski saria jaso zuen 1976an, eta Lifar saria 1988an. Arte eta Letren Zaldun (1990), Ohorezko Legioaren Zaldun (1996) eta Arte eta Letren Ofiziala da (2001).

Toulouseko Kapitolioaren Balleta

Kapitolioaren Balletak arte lirikoa jorratu zuen soilik lehen bi mende luzetan, operetako ballet dibertimendu gisa. 1949. urtean, ordea, dantzari eskainitako lehen gau-emanaldiak antolatu ziren, Louis Orlandi ballet maisu eta koreografoari esker. Azkenik, Kapitolioaren Balleta lan koreografikoei eskainitako gau-emanaldiak antolatzen hasi zen. Eta ikuskizun ahaztezinak eskaini zituen bere dantza zuzendarien eskutik: Louis Orlandi (1949-1954 eta 1963-1978), Juan Giuliano (1978- 1984), Jacques Fabre (1984-1994) eta Nanette Glushak (1994-2012).

Kader Belarbi koreografo eta dantzari izarra balletaren dantza zuzendaria da 2012ko abuztutik. Eta orrialde berri bat idazten hasi da, bere ezaugarriak erreperitorio klasikoa mantentzea eta egungo lan berriak sustatzea direlarik. Kader Belarbi buru duen proiektu artistiko honek egungo gorputz-lengoaia guztiei, arte koreografikoaren aniztasunaren espresioei irekitako 35 dantzariko konpainia lortu nahi du.

Tradizioa eta modernotasuna dira Kapitolioaren Balletaren zutabeak eta bizirik dagoen, bere garaiarekin bat doan eta guztiei irekia dagoen ballet baten isla agertu nahi du, denboraldiz denboraldi.

Kader Belarbi

1975ean Pariseko Operako Dantza Eskolan sartu zen. Handik bost urtetara Balleteko kide bilakatu zen Belarbi. Koadrila 1981ean, Korifeo 1984an, Subjektu izendatu zuten hurrengo urtean, maila ezberdinak aise gaindituz. 1988an AROP elkartearen (Pariseko Opera Sustatzeko Elkarte, jatorrizkoan) saria jaso eta lehen dantzari izendatu zuten. Urtebete beranduago Izar izendatu zuten, Rudolf Nureyeven *Basoko Loti Ederra* lanean egin zuen txori urdinaren antzezpenarengatik, eta Nijinski saria jaso zuen ere.

Bere ibilbidea estilo ezberdinen garapenaren isla da. Pariseko Opera Nazionaleko erreperitorioaren lan handiak dantzatu eta, aldi berean, dantza garaikidea jorratu du. Bere izena estetika ezberdinetako koreograforik nagusienak sinatu dituzten mundu mailako sorkuntza berri ugari dago lotuta: Roland Petit, Rudolf Nureyev, John Neumeier, George Balanchine, Jerome Robbins, Maurice Béjart, Maguy Marin, Dominique Bagouet, Saburo Teshigawara, Jirí Kylián, William Forsythe, Mats Ek eta Pina Bausch.

Koreografo gisa, Kader Belarbi lan asko sortu ditu. 2005ean Nils Tavernier ekoizleak ekialdeko dantza baten koreografia agindu eta Abdallah El Kassar printzearen papera eskaini zion *Aurore* bere film luzean. 2008ko denboraldiko amaieran Belarbi agur esan zion ofizialki Pariseko Operako Balletari, Carolyn Carlsonen *Signes* lanarekin. Bi denboraldi eman zituen (2009/2010 eta 2010/2011) La Comète Châlons-en-Champagneko Eszena Nazionaleko artista gonbidatu gisa eta birak egien zituen ere dantzari talde batekin. Ondorengoak sortu ditu Kapitolioaren Balletarentzat: *Liens de Table* eta *À nos Amours* (2010), *La Reine morte* (2011), *Étranges voisins* (2012), *Le Corsaire* (2013) eta *Piztia eta Ederra* (2013).

Dantzari eta koreografo ospetsua, Kader Belarbi jakingura asezina eta dantzatutako abenturak bizitzeko apeta handia dauzka. Sorkuntza artistikoaren saria jaso zuen 2004an. Arte eta Letren Ofizial (2006), Merituaren Ordena Nazionaleko Zaldun (2006) eta Ohorezko Legioaren Zalduna da (2008).

Prentsa Harremanak:

Yves Mousset MY Communications

myc@my-communications.fr

Tfnoa. (0033) 01 45 00 30 01 edo (0033) 06 08 60 31 45